

# **KRESALETAN**

**ARRANTZALE BIZITZAKO IRUDIAK**

**A. ZUBIKARAI  
G. SOLABARRIETA**

**(Zati batzuk KRESALA´n irudituak)**

## KRESALETAN

### EGILLEAK

MONTIGOLIÑO: Ume bizkorra  
 KITOLIS: Arrantzale zaarra  
 KONTZE: Emakume txatxar bat  
 LEOKADI: Kortzeleko mamuen erregiña  
 MARIXEBEIKAÑEKO: Andragalanta. Umiei lo eragiteko aitaturten jakoaena.

AKILIÑE	}	Erriko emakume gordiñak
KOSPA		
TRAMANA		
BRIX	}	Sasoi oneko arrantzaliak
TXANGURRO		
TXORDO		
MIKOL		
TXITXARRO	}	Amabi-amalau urteko umiak
IXKIRA		
KIRRIXKI		
MAÑASI: Neskatil liraiña		
ANGEL: Mutil gazte lerdena		
TOMASA: Angelen ama		
MATXIN: Gau zaindaria		
ANTONI: Neskatil gaztea		
INDIANOA: Mutizar baldar bat		
ABEL	}	Angulariak
PERU		
ZATORRA		
PIPAZ		
LIRAIN	}	Moskorrak
MOKKOR		
TXILIN		
MAMUAK	Gizonezko batzuk	
MARIXEREN SERBITZARIAK:	Emakumezko batzuk	
ARRANTZALIAK, DANTZARIAK, ABESLARIAK		
IRUDIAK: ONDARRUKO KALETAN		

## I.- KORTZELEKO MAMUK

Egileak: KITOLIS, MONGOLIÑO, KONTZE, LEOKADI, MARIXE, MAMUAK eta SERBITZARIAK  
 Irudia: Ondarruko elizaren inguruan.

(Iluna, KITOLIS eta MONGOLIÑO agertzen dira. MONGOLIÑO bildurrez. Gau-erdia)

MONGO.- Guazen, guazen arin emendik, aitita.

KITOLIS.- Zelako zistrina eta mirriñada berau? Mutxarria ba zifia be.

MONGO.- Zu zeuk bildurrik eztaukazu-ala

KITOLIS.- Zeren bildur?

MONGO.- Or goiko mamuak ... Leokadik urtengo baleu?

KITOLIS.- Ai Mongoliño! Gure arduraz dala uste, Leokadi?

MONGO.- Zegaitik dago ba or? Nire lagunak esaten dabe, gabaz ementxe ibiltzen dala, korretan bueltaka.

KITOLIS.- Baita zera be! Lo egiten deban umiak sentidu dabe inoiz?

MONGO.- Gure alboko Patxi lxrdek ez beintzat. Arek lo egingo leuke... baita baita .... olagarrien erpak tengadaka eukita be.

KITOLIS.- Zimarroia baiño lodiago zelan egiten da ba?

MONGO.- Eta mamuak zetan egoten dira ba or?

KITOLIS.- Mamuak, txotxo, Ondarrun zaintzailleak dira, Antxiña, antxiña, dan danak on onak ei zi-

ran-eta arimen kanpaia jo orduko etxian batu ta gordeten ziranian, mamuak bakarrik gelditzen ziran ortxe, kortxelian, erriaren zaindari.

MONGO.- Eta orain?

KITOLIS.- Orain eztago antxiñako konturik. Orain ... orain ... bestelako mamu asko bizi dira basterretan.

MONGO.- Orduan be dan danak santuak ba ziran, zegaitik dagoz ba eleizan iru edo lau bakarrik?

KITOLIS.- Bai Mongoliño. Orduan be ... orduan be ... Ba ei zan bein Kontse bat ... Kontse Morokil

MONGO.- Neuk be jango neuke ba morokilla.

KITOLIS.- Begiakin bai, zuk, begiakin.

Kontze ori beti ibiltzen ei zan erri guztia nastatu nairik. Onaxe ekartzen ei ekiazan yente asko atzipetuta, guzurrez guzurra bitza lez erabilliaz, gorroto eta ikusi eziñak biztu guraz. Ta bein Kontze ori bere maltzurkeri ta ziltakerietan ebillala, mamu guztiak jatxi ta agertu ei jakozan, ta...

MONGO.- Zer aitita, zer?

KITOLIS.- Kontze orreri miña atara ta erre ondoren, arri biurtuta itxi ei eben ondorenguen eskarmenturako.

MONGO.- Zelan ori, zelan? Esaizu ... esaizu ... (Astirotsu urtetan dabe)

(Iluna egiten da. KONTZE agertzen da kezkatu, alderdi guztieta- ra begira, begi ta belarri adi, zer entzun, edo agertuko, norbaiteri itxaroten lez)

KONTZE.- Atune? Atune? Atune zara ? (Kezkaz) Eztakit nire irudipeña izan dan. Baña bera zala egin dot. Ordua dau ba ...

Atune? Atune? ... Ene ba! Orain-guan bez? Gogorra da gaurkua! Eneban pentsaten gaba olako itzalaizaten danik. Ointxe ... bai? Ezta ... Askoda ba! Irudi batzuk ikusten dodaz... pauso otsak sentidu ... berbak be entzuten nagola esan lel...

(Lau egaletatik MAMUAK agertzen dira baltzez jantzita. Argi illunak dakarrez eskuetan. Bide guztiak sarratzen geratuko dira, biñaka.)

Itzal, kantuz:

MAMUAK. (Kantuz)

Gora beti, gora gu  
egi alde beti gu

Mamun mamun jo ta klausk  
txipli txapla Kontze-plaust

BATEK.- Erdu, erdu Leokadi  
mamu danon erregin  
beti gertu, beti adi  
Eleizako kortzelin.

MAMUAK.- Gora beti, gora gu  
egi alde beti gu  
Mamun mamun jo ta klausk  
txipli txapla Kontze-plaust

LEOKADI.- (Agertuz)  
Ondarruko yenteak,  
bizi fedez ta bakez,  
uxatu zuen kezkak,  
emen nator zuen aldez.

MAMUAK.- Gora beti, gora gu  
egi alde beti gu

Mamun mamun jo ta klausk  
txipli txapla Kontze-plaust

KONTZE.- (Dardarti) Nire begiak  
amesetan dabiz.

LEOKADI.-Zure begiak ez dagie  
amesik

KONTZE.- (Garaxika, iges egin naidau, baña Mamuak bideak sarratzen dautsez)

LEOKADI.- (Garratz) Ni naz Kortzeleko Leokadi

KONTZE.- Kortzeleko Leokadi !

MAMUAK.- Gure erregin Leokadi !

LEOKADI.- Erri guztiko barri dakit nik.  
Euri nai eguzki, txingor eta edur,  
aixe berde edo ipar baltz, gau ta  
egun, ortxe nago beti arrixko  
jantziz.

KONTZE.- (Gero ta bidurtiago ) Kortzeleko Leokadi!

LEOKADI.- Dan dana dakit nik, zirkiñak egin barik!

KONTZE.- Kortzeleko Leokadi ...!

LEOKADI.- Guzurretzeko autu guztiak, Korretako azpikeriak, eleizpeko mar-marrak, balkoietakoa begirakune ta jardunak ... danak dakidaz, ixilik egon arren.

KONTZE.- Kortzeleko Leokadi !

LEOKADI.- Benetako malkoak buzti nabe iñoiz; guzurretako negarren malko tantak be jo nabe sarri.

KONTZE.- Kortzeleko Leokadi!

LEOKADI.- Kortzeleko Leokadi, bai, bai. Kortzeleko Leokadi!

KONTZE.- Gure erregin Leokadi!

LEOKADI.- Umiak bildurtu egiten dira nigaz, baña nik eurentzako begirapena besterik ez daukat.

(Asarre) Zure antzeko txaplatak, txatxalak, txotxiñak, sorgiñak, enabe aintzat artu izan. Baña ezin neike geiago. Miña, miña, miña atara, erre, ta moztu barik ezin neikezu laga.

KONTZE.- Ko..ko..Kortzeleko Leokadi!

LEOKADI.- Enaz ni bakarrik asarre. Ba dator beste erregin bat be. Begiratu...

(MARIXE BEIKAÑEKO-ren SERBITZARIAK datoz, aizetara dantzari, mamuen egaletan gelditzen dira. Euren atzetik zuri zuri, MARIXE BEIKAÑEKO)

SERBITZARIAK.- (kantuz)

Umiak lo nasaitu  
Marixe Bekaiñeko  
emen dator eztiitsu

MARIXE.- Umiak, lo gozoro,  
Marixe Beikañekoak  
erre ditu lau zoro.

KONTZE.- (Zoro antzera) Mariñe Bekaiñeko!

MARIXE.- Neu naz, bai, Marixe Bekaiñeko.

KONTZE.- Ma..Ma..Marixe Bekaiñeko!

MARIXE.- Marixe Bekaiñeko, bai. Neu naz

KONTZE.- Jiesuss! Jiesuss milla bidar!

MARIXE.- Jesus asko miñean... ta zitalkeria biotzian.

KONTZE.- (Gero ta zoroago) Neure Jaungoiko maite maitia!

MARIXE.- Ume txiki askori lo gozua emon izan dautset illuntzetan, begierrez negarrez ebiltzala. Nire zeregin ori pozik bete izan dot, baña gaur ...

KONTZE.- Gaur...gaur...zer?

MARIXE.- Gaur pozago lo eragingo dautsat begiak eta ezpanak autuetarako ta guzurretarako dituan zital, petral, lapikotxiki bateri.

KONTZE.- (Zer esaten daben eztakiala) Marixe Bekaiñeko Arrigorri bueltan.

MARIXE.- Arrigorri bueltan ez, ementxe, korreta zarrian baño. Leokadin laguntasunagaz zeuri lo eragiteko.

LEOKADI.- Lo eragin eta arri biurtu.

MARIXE.- Kortzeleko mamu oneik artu ta ortxe goian, euren artian, arri biurtuta lagateko, erriaren bakerako.

LEOKADI.- Agure ta atso koitaduen nasaitasunerako.

MARIXE.- Gaztien maitasunak zindo loratu daitezcan...

LEOKADI.- Umiak guzur biderik ikasi ez dagien.

MAMU ÉTA SERBITZARIAK.- Leokadi eta Marixek dakie zer egin.

KONTZE.- (LEOKADI ta MARIXEK arri gañian ipinten dabe ta berari lo eragifnez jardungo dira, gorputz guztian joaz). Parkatu...! Parkatu...!

MAMU TA SERBITZARIAK.- (Kantuz)

Ondarruko kaletan  
arro Kontze Morokil  
guzurraren ezpanak  
asmuaren sei begi.  
Kortzeleko Mamuak  
beti dagoz zaindari  
erregiñik onenak  
Marixe-Leokadi.

Begi belarri  
kendu orreri  
biurtu arri,  
danon lotsari.

MARIXE.- Zeure bizitzan esandako  
guzur barriketakaitik.

MAMUAK.- Ezpanak moztu!

SERBITZARIAK.- Moztu ezpanak!

LOKADI.- Zeure bizitzan kontauriko  
kontu ta autu txarrakaitik.

MAMUAK.- Mingaña erre!

SERBITZARIAK.- Erre mingaña.

MARIXE.- Zeure bizitzan ikusitako ez  
ikustekoakaitik.

MAMUAK.- Atara begiak!

SERBITZARIAK.- Begiak atara!

LEOKADI.- Yente on onai eragindako  
negar garratz luzeakaitik.

MAMUAK.- Biurtu arri!

SERBITZARIAK.- Arri biurtu!

MARIXE.- Asmauko zenduzan guzu-  
rrakaitik.

LEOKADI.- Eragingo zenduzan nega-  
rrakaitik.

MARIXE.- Sortuko zenduzan asarrea-  
kaitik.

SERBITZARIAK.- Kortzelian izango  
zara gaurtik.

MAMUAK.- Gorputz guztia arri biurtu-  
rik!

LEOKADI.- Txotxiñen sorgin, sorgiñen  
txotxin, kortzelian izango zara  
bizi guztian.

MAMUAK.- Kortzelian bizi guztian.

SERBITZARIAK.- Zerua zeru dan bi-  
tartian!

KANTUA  
KONTZE. Parkatu! Parkatu! (gorpu-

tza jaso eziñik ibilliko da esanal-  
di bakoitzean)

GUZTIAK.- Parkatu ez! Urkatu!

KONTZE.- Urkatu ez! Parkatu

GUZTIAK.- Parkatu ez! Suzitu!

KONTZE.- Suzitu ez! Parkatu!

GUZTIAK.- Parkatu ez! Arritu!

KONTZE.- Arritu ez! Parkatu!

GUZTIAK.- Parkatu ez! Birindu!

KONTZE.- Ene bada! Ene bada!

GUZTIAK.- Orra bada! Orra bada!

KONTZE.- Ene ama! Ai ama!

GUZTIAK.- Ebai zorrotz! Miña ata!

(LEOKADIk artazi andi batzugin minga-  
ña ebagi ta jaurtiten dau)

KONTZE.- Ai! ai! ai! ai!...

MAMUAK.- Ja! ja! ja! ja! ja! ja!!

SERBITZARIAK.- U, u, u, u, u,!!! (Poz  
agerpenak egiten ditue)

MAMUAK KONTZE´ren gorputza jaso  
ta erriari erakusten dautse.

SERBITZARIAK bere inguruan kantuz  
eta dantzan ari diran bitartean.

MARIXE TA LEOKADI.- (KANTUA)

Eleizaren kortzelian  
Mamuak zelatari,  
erria lo dagoenetan  
umetxoen zaindari.

DANAK. -GORA, GORA, GORA GU  
EGI ALDE BETI GU.

MARIXE TA LEOKADI.-  
Euri nai eguzki,  
edur eta txingor  
Marixe ta Leokadi  
erregin maitekor.

DANAK. Gora, gora, gora gu,  
egi alde beti gu.  
Marixe Leokadi  
erregin maitekor  
izango dira beti  
Ondarrun pozkor  
ipar baltz, aixe berde,  
euri edo txingor.  
Gora, gora, gora gu,  
egi alde beti gu.

OIALA

**II - EKAITZA**

Egilleak: AKILIÑE, KOSPA, TRAMANA, BRIX, TXANGURRU, KITOLIS, MIKOL, MAÑASI, UMIAK, ARRANTZALIAK ETA ERRITARRAK,

Irudia: Eleiz aurrian, itxaso aldera duan kalian.  
(Galerren aizea, Kezka bizia errian. Marifelak itxasoan dira ta origaitik agure, emakume ta umien artian, oi dan ardura ta estutasuna. Portu aldera duaz danak, kezka negarti, zoritxarren baten bildurrez.)

AKILIÑE.- (Sispuruka) Jiesus!! Jiesuss!!!

KOSPA.- Auxe da egualdia, Jaungoiko maitia. Gaur ezer pasaten ez ba da ... Ene bada-ta!

AKILIÑE.- Antiguako Ama on ona! Gure gizonak zaindu egizuz ... itxasuan diran gure gizon koitaduak eta txalupak. (Joaten dira)

TRAMANA ta BRIX agertzen dira, arin-aringa

TRAMANA.- Ai ene gure txalupak! Ai ene Jesus ...

BRIX.- (Leio batetik dindilizka dagon zerbait erakutsi naiean) E. Tramana, Begira...begira.. kontuz!. Kontuz!.

(TRAMANA'k gora begiratzian estrapozu egiten dau ta jausten da)

BRIX.-Auxe da andia! Nai aña barre egiteko astirik bez (Dua)

TRAMANA.- Zeri barre egin bear ete dautsa gero berorrek, zantar zikin orrek? Brix izango zara zu beti, erriko aize zoro gangarra! Orraitiok-o...

(Nekez altza ta eskutaten da portu aldera)

(GIZONAK igaroten dira ixil-ixilik. Elizako kanpai-otsa entzuten da itzal, aize txistuen artian)

TXANGURRU, KITOLIS eta TXORDO agertzen dira.

TXANGURRU.- Gaur baten batek e....

KITOLIS.- Baltza be baltza da gero itxasaldia. Galerrena be galerrena sortu da.

TXORDO.- Neuk dakidan batek, a zelako traskotza erabilliko daben.

KITOLIS.- Emen olan joten dabenian ... Txalopen batzuk nasai eztira ibilliko, atezo baño. Neuk ba dakit au zer dan. ( Joaten dira)

UMIAK sartzen dira, maisua buru dabela, kantari ta eskian.

UMIAK.- (Kantua)

Jaungoikuaren izenian, arima pielentzat, borondate onenian mesedez erregu bat.

BATEK.-

Gure Jaungoiko altsua Antiguoko Ama gozua bigundu arimen sua entzun gure erregua.

UMIAK

Itxasoko galerrenak iñor galdu ez dagian emen erriko mutillak arimentzat eskian.

KIRRIXKI.- Arima pielentzat. Arima pielentzat limosnatxu bat.

MIKOL.- Txotxo, txoritxiki bat be eztaukat ba aldan. Bestela emongo neutsuke pozik be.

KIRRIXKI.- Limosnatxurik ezin ba Aita Gure bat borondate onez.

MIKOL.- Bat ez- e, amalau be esan dodaz onezkero..bai, amalau onak.

TXITXARRO.- Orrek emondakuagaz kandela gitxi erosiko doguz, txo. Sekula pospororik be eztauk eukiten orrek, pospororik be... nai ta beti erreten ibilli.

UMIAK juaten dira. KITOLIS, TXANGURRU ta TXORDO datoz.

KITOLIS.- (Mikoleri) Etzaitz Mikol portura juan. Negarra baño ez dago an, negarra ta sispurua baño ez.

MIKOL.- Negarra... Negarra bakarrik, Zezegaitik izango da. Gizonak?

KITOLIS.- Gizonak-a... Batek ba daki oindiño. Batzuk ba datoz.

MIKOL.- Batzuk ez dira danak.

TXANGURRU.- Paulo ta sartu dira, Mikol. Paulo-ta.

TXORDO.- Koitaduak etenda eldu dira. Zanetatik be odola dariola, egin biar izan daben jo aldiagaz.

TXANGURRU.- Jose ta be etorri dira, Jose-ta be.

(MAÑASI agertzen da ta egal baten, zer ete diñoen entzuten gelditzen da)

MIKOL.- Dan danak etorriko dira orduan, Jose bera ez da bixkorrena-ta.

KITOLIS.- Dan danak .... ez ba.

MAÑASI.- (Lotsakor)Sardinzar sartu da?

KITOLIS.- Sardinzar... Sardinzarren txaloparik ikusi dozu, Txordo?

TXORDO.- Ez dot uste a sartu danik.

MIKOL.- Al ebenak al eben tokira joko eben, ta ... Biar ba da beste porturen bat joko eben. A bera makala ez da itxasuan.

MAÑASI.- (Bere artian) Antiguako Amalaztana! Sardinzar zaindu egizu, Sardinzarren txalopia... ta Angel be bai bertan.

MIKOL, KITOLIS, TXANGURRU, ta TXORDO aldendu egiten dira. AKILIÑE ta KOSPA agertzen dira.

MAÑASI.- Dan danak etorri dira?

KOAPA.- Etorri ez diranak beste nubbaiten sartuko ziran, diñuenez... edo galdu.

MAÑASI.- Eta Sardinzar?

AKILIÑE.- Iñok ez daki aren barririk (MAÑASI gero ta kezkatia go portu aldera begira, zerbait ikusi edo igarri nai ba leuken antzera).

Entzun dozu, Kospa, zein dauka berorrek Sardinzarren txalopan?

KOSPA.- Batek ba daki!

AKILIÑE.- Ba dakizu itaun orrek kezkatuta lagaten nabela?

KOSPA.- Baita zera be! gauza guztiai puntak artzen ibilli beti.

AKILIÑE.- Sardinarren txalopan zein eta dabillen be...

KOSPA.- Sartu gaitezen elizara, beste-lako buruauste barik, gaur be gure Jaungoikoa laguntasuna emon eta emoteko izan daiten.

KOSPA ta AKILIÑE eleizan sartzten dira. Gizonak, andrak eta umiak datoz portu aldetik kantari. Euren artian, erramuak lepoan dituela, bustita, mariñel batzuk. Elizara duaz danak. MAÑASI batera ta bestera begira, arduratsu)

ERRITARRAK.- (Eleizara duazela, kantuz)

Ekaitzak mariñela, iruntzi bear-du.

Antiguako Ama, gugaitik erregu. Sarri egiñagaitik itxasuak orru, bakean zainduko du Jesusek Ondarru.

MAÑASI.- (Mintsu)

Sardinarren txalupakorik ez dot iñor ikusi. Angel bez... Angel... Batek ba daki onezkero ikusiko ez ete dodan be. Batek ba daki onezkero zelan egon leiken.

(Errukitsu)

Zaindu gure gizonak. Ekarr por-tura Sardinarren txalopia... ta bera be bai, Angel be bai... Orren ordaiñez nigandik ezer nai izan ezker... orretarako nik ezer egin biar ba dot.... emen nago naizen dana. Dan-dana, Ama!

(Ekeizako atia zabaltzen dau. Barruan argiak ikusten dira eta erritarrak geienak auspez ototzean eta kantuz)  
Itxasoko Izar,  
Antigua'ko Ama,  
negar eta negar  
emen gu, laztana.  
Baretu olatuak,  
ekarri gizonak,  
liortu txalupak,  
ekarri dan danak.

Mariñelen Ama,  
gure kutunena.  
Ondarru dan dana  
emen zuri arrenka.  
Begira itxasora,  
begiratu samurrez,  
gizonak portura  
ekarri osasunez.

ERRITARRAK.- Jaungoikoaren Ama  
l aztana,  
biurtu begiak guregana.

OIALA

### III - GURE GAZTEAK

EGILLEAK: GAZTEAK, ANGEL, TOMASA, KOSPA, AKILIÑE, TRAMANA, BRIX, MAÑASI.

IRUDIA: Kale egal bat. Bastertxoan, Angel'en etxea.

ANGEL.- (Gazte aldran, kantari:)  
Korreta zarretikan  
korreta barrira,  
mamuak kortzelian  
umiei begira.

DANAK.- Ai, ai, ai, neskazarrak,  
kai, kai, kai kaixarrak,  
Ondarru'ko kontuak  
ba dakiz mamuak.

ANGEL.- Iperkaletik asi  
eta Kalandira  
telltupian jantzi  
siesko erropia.

DANAK.- Brast, brast, brast parrastadan,  
tan, tan tanta ugari,  
au ezta ipar baltzan  
euri zaparradi.

ANGEL.- Urten Guzurretxetik  
eta Pixapera  
ba da ezkillararik  
nai kale okerra.

DANAK.- Mar, mar, mar barriketan  
txur, txur, txur atso bi  
ba dabil kontuetan  
saltzia ugari  
(GAZTEAK aurrera duaz. ANGEL etxe onduan gerazen da)

BATEK.- Ezatoz ala, Angel!

ANGEL.- Ama zarraren onduan

atrakatera nua...!

(Bere artean) Ori da sasoi  
ori...!

TOMASA.- (Agertuaz) Barruan etziñateke obeto, Angel!

ANGEL.- Beti etxian sartuta be...

TOMASA.- Neuk beintzat, etzina ego-teko gogo geiago daukat.

ANGEL.- Ni emen egonarren eziñik be eztozu, ama.

TOMASA.- Zeozer be esatekotan nabil  
ba azpalditik.

ANGEL.- Emen ez esateko moduko kontuak?

TOMASA.- Orrenbesterik be... iñor ekarterik be eztozu pentsatzen nire laguntasunerako ta... (Angel, irribarrez, erantzun barik) Zure biotzeko atean eztau oindiño iñok deitu ta orregaitik eztozu zeuk be iñori oles edo jeupada bat esateko asmorik artu izan. Baña zerbait egiteko garaian zagoz, ta begiz jota daukat nik guretzat ondo datorren neskatillatxu bat.

ANGEL.- Zein?

TOMASA.- Antoni Errota da, Salustiñe-Errotaren alaba.  
(ANGEL burua makur, albora begira)

Bere bizikoa dozu Antoni ori, guztiz langillea, makur baktaxagaz bat eta erdi egiten dakiana ta aberatsa gañera... la, ba, Antoni'ren amak berreun dukat ekarri zitun Artola'tik urretan, orduan oin baño urre geiago egoan be-ta; aitak barriz atuntsu onak izan ditu ta bere potin andi



- MAÑASI.- Akillako intxaurrak beti zarata asko, baña Antxubixakuak nausi
- KOSPA.- Ezer esan dautsue?
- MAÑASI.- Niri? Zer dala ta? Zeñek?
- KOSPA.- Angel...
- MAÑASI.- Aaa! Orretara ziñuzen? Ain asko esaten da...
- KOSPA.- Antonigaz ezkontzeko danik eztautzue esan?
- MAÑASI.- Orrenbeste be izan lei.
- KOSPA.- Ta? Zer diñozu?
- MAÑASI.- Nik, Ondo deritxodala. Egundokua da Angel-entzat Antoni (Dua)
- KOSPA.- Ala izango da... edo izan leiteke. Baña ointxe zaitut nik zu iñoiz baño geiago erruki.
- TRAMANA ta BRIX barriro datoz alkarren atzetik zarata bizian.
- TRAMANA.- Akula bizi luze zorrotzaa!!!!
- BRIX.- (Kospa'ri burlaz) Ai au da mutxarri ederra!
- KOSPA.- Nungo akula ta mutxarriak? Ondo zagoze zeuek?
- TRAMANA.- (Burlaz) Zeu baño akula obarik nai?
- BRIZ.- Nun zeu baño mutxarri biziagorik?
- KOSPA.- Lotsagabe, lotsagabe, ganorabako ordi zikiñok-o.....!
- GAZTEAK.- (Burlaz sartzen dira ta andrazkoak inguruan artu ta kantuz)
- Tramana eta Brix, Brix, Brix beti errixetan, taketa joten dabiz ordu guztietan.
- BRIX.- Tramana akulia,
- TRAMANA.- Brix itxaskabria,
- GAZTEAK.- Autu eta saltzia euren janaria.

OIALA

IV - KITOLIS

EGILLEAK: TXANGURRU, MIKOL, TXORDO, TXITXARRO, IZKIRA, KITOLIS, ARRANTZALIAK.

IRUDIA: Kale kanto bateko aterpean. Tretzak azkatu ta amuak lotzen.

- TXANGURRU.- Zu nun izan zara gero?
- MIKOL.- Ni? Baionan be bai, Saanderren be bai, iñoiz Kijonen be bai.
- TXANGURRU.- Baiona, Saander, Kijon...! A ze! Orreik erriok edozein umek be ikusi ditu. Koruña nun dagon ezta kizu zuk.
- MIKOL.- Jakin ez? Koruña Kijon baño arutzago dago.
- TXANGURRU.- Iñoiz egon zara bertan?
- MIKOL.- Ni ez.
- TXANGURRU.- Ni bai.
- MIKOL.- Baña ni arutzago be izan naz.
- TXANGURRU.- Nun gero?
- MIKOL.- Lisburun.
- TXANGURRU.- Bai ta ni Kadizen, Tankerren eta Zeruetan, moruak dagozan lekuetan.
- MIKOL.- Moruak Kadizen dagoz?
- TXITXARRO.- Zeure durduk Kadizen. Ori be ezta kizu?
- TXORDO.- la ... zarata asko atara, Elantxobetik be sekula igaro ez ba zara.
- MIKOL.- Kadizen gatza egoten da.
- TXORDO.- Moruak nun dagoz ba?
- TXANGURRU.- Tanker'en eta Zeruetan.

- TXITXARRO.- Zeuk ikusi dozuz, Txangurru?
- TXANGURRU.- Bai eun bidar be.
- TXITXARRO.- Zelanguak dira ba?
- TXANGURRU.- Geu langoxe gizonak.
- TXORDO.- Gu langoak, Baltzak ez dira ba?
- TXANGURRU.- Baltzak edo baltzeranak. Sorki bat erabilten dabe buruan eta jantzi zar luze, zikin bat soñean.
- IXKIRA.- Moruak baltzak dira. Neuk ikusi neban bat bein Saanderko llamean. Arpegia ta paparra ta eskuak eta dana baltz baltzak eukazan, ezpanak durdo durdo, agiñak zuri zuri ta kiskur kiskur ulia
- MIKOL.- Orreik ez dira moruak
- IXKIRA.- Zer dira ba?
- MIKOL.- Aprikanuak dira orreik
- TXORDO.- Aprika ez ete da ba moruen lurra?
- MIKOL.- Txo...txo... Bizarrak be erreko jatzuz, urten aurretik, olako jakin gureagaz.
- TXANGURRU.- Ez egiozu oneri jaramonik, Mikol
- TXITXARRO.- Esan ba, esan ba.... bai edo ez?
- TXANGURRU.- Ixililik egongo zara zur azpiko kandelak kentzen ez dakizun ume pongoliño demon-tresenoi?
- MIKOL.- Ortik ibiltzen giñanian amaika arrisku erabilten gendun.
- TXITXARRO.- Eztozu bein be tirabirarik egin?
- MIKOL.- Ontzi andietan ez, estualdi asko eruan arren. Txalopetan bi

bidar, baña Jaungoikuari ta Antiguako Amari eskerrak, beti urten dot onian.

TXORDO.- Ixilik zagoz gaur Kitolis. Patrikaran asko ba lego...

KITOLIS.- Ni enaz izan Peru ta Mikol legez urandiko arraiña. Baña iru aldiz tirabira egin dot. Irugarrena... itzala ta ikaragarritzkoa izan zan.

IXKIRA.- Orrenbeste? Igeldoko parola ba dakigu gero nun dan.

KITOLIS.- Gabon aurretuxa zan. Ain zuzen be, ibaian zear kanporantz giñoiazala, uragea edo erramua zala ta etzala, beste txalopa batekoakaz asarratu giñan; deadarka, zarataka ta arrokerizko berbak alkarri esanaz urten genduan ur zelaira ta iñori etxakon gogoratu Antiguako Amari beti esaten jakon Agur edo Salbea esatea.

Orio aurrean berdeletan ibili ondoren etxeruntz gentozala... brast, joten gaitu aize bunbada batek eta dsaust, danok itxasora txalupa barruko arrain, otzara, soka ta tresna guztiakaz nastean.

IXKIRA.- Eta etzendun laguntasunik artu?

KITOLIS.- Laguntasuna?

Ia mutillak, esan euskun atzekuak, eskeiñi daigun Antiguako Amari danok ortorik eta erramuak lapuan ditugula bere elizatxora juatea, emendik onean urteten ba dogu ta asi gaiten errosarioa esaten. Ipiñi neban

neuk lkomes, neure amabi urteko seme ederra killa gañean auspez ta asi giñan errezaten. Orduak ordu orrelaxe gengoan.

TXORDO.- Palurik be ezeukan liorrera urreratzeko.

MIKOL.- Ixi ba, berak esango dau-ta.

KITOLIS.- Ze ordu da? Itandu euskun Matxin zarrak, eriotzondoko soñuagaz. Amarretatik amaiketara, erantzunguuntzan. Ta berak. oraindik belarrietan daukadan esateko erarik illunenagaz: Zein luzea dan gaba! Ezin neike iraun, laster amaitu bear dot, eta zuek ikusten ba dozue gurekorik...

Andik laster, aotik bitsa dariola, damu dot jauna, esanaz.... an joan zan ondora.

MIKOL.- Ondo gizon jatorra zan bera.

KITOLIS.- Ezin egonda gendozan, alegiña egin arren.

Neure semetxua, neure lkomestxu, otzikara andiak artu eban ta negar muxinga, inkesa-ka ta zotiñez, aita bai, aita.... asi jatan deiezka ta deiezka. Axe errukigarritasuna! Aitak ezin ezer egin bere seme kutunaren alde. Aitak ezin goiza ta laguntasuna ekarri, bere bizitza emonda be.

Jo genduzan beste olatu batek. Aldebanatu giñan barriro.

Urpetik azalera urten nebanian, asi nintzan semiaren billa.

Txaloparaño eruan neban ta esan neutsan txalopeari gogotik

eutsi eiola, baña alperrik. Ezin aita... ezin aita... iñoian, ezin... Artu neban orduan neure bularraren onduan, potiñaran eta neure gorputzaren bitartean ipiñi neban, ta bere soñari ta potiñari alegiñakaz elduten gelditu nintzan.

Ixilik gengoan, ixilik.

Ikolestxu, deitu neutsan andik apur batera. Ikolestxu, ondo zagoz! Ez eustan ezer erantzun. Zelan, ba, ilda egoan-eta?

TXORDO.- (Negarrari eutsi ezinda) Iñoi! Orixe gogorra.

KITOLIS.- Nik eztakit ze ordu izango zan beste olatu batek txalopea ta semea besartetik kendu eustazanean, Gero... etxean agertu nintzan gaixorik, erdi

zoraturik. Olaxe egon nitzan ia illabetean ta sendatu nitzan erako... itxasora barriro. Baña ez geiago barratik urteran Antiguako Amari, egun aretan lez, Agur efo Salbea esan barik.

(Kanpai otsa entzuten da. Guztiok txapelak kenduta, zutik gelditzen dira, gora begira, Abeslariak, samurki, barrutik:)

ABESLARIAK

Jaungoikuak salbau zaitzala Ama Birgiña Maria, Miserikordiaren Ama, guztiz da miragarria. Konfiantza osuarekin zugana nago jarria.

OIALA

**V - ALKAREN AURREAN**

EGILLEAK: TXITXARRO, IXKIRA, MATXIN, KIRRIXKI, MUTILGAZTIAK, ANGEL, MAÑASI, TRAMANA.

IRUDIA: Kale-kurutze baten. Mutiltxoak txapetan diardue.

TXITXARRO.- Tuntux! (Txulo!)

IXKIRA.- Zereko tuntux.

KIRRIXKI.- Baita zera be.

IXKIRA.- Arra bete falta dau orrek tuntux egoteko.

TXITXARRO.- Emoten ba dautzut gero...

IXKIRA.- Ikusi. Ezetz?

TXITXARRO.- Erabili egin dozue.

IXKIRA.- Ikutu barik erabili?

TXITXARRO.- Nik ez dot ikusi zelan geratu dan ala?

KIRRIXKI.- Zugaz ezin leike.

IXKIRA.- Beti asmaten dozu zer bait.

TXITXARRO.- Tuntux ezta geratu ala? Neuri esan ezetz?

KIRRIXKI.- Geratu balitz or egongo zan.

TXITXARRO.- Nai dozuena esan. Ni barriri botatera nua, tuntux emoten ez ba daustazue.

KIRRIXKI.- Zegaitik bariro jaurti

TXITXARRO.- Erabili dozuelako

IXKIRA.- Lapak erabili. Orreik makalen aitzakiak izaten dira.

KIRRIXKI.- Neu be alzatara nua orrezkero.

IXKIRA.- Neu be bai orduan. Olan ezin jokatu leike.

KIRRIXKI.- Garbi jokatu edo bapez.

MONGOLIÑO.- (Matxin datorrela ikusita) Matxinplaka! Matxinplaka!

TXITXARRO.- Matxinplaka! Matxinplaka!

(Mutiltxoak eskutatu egiten dira ta Matxin'eri irri kantak kantari. MATXIN sartuko da ta eurei destañezko begirakada bat egin ondoren, diruak batzen ekingo dautsa:)

Kantua: Matxinplaka, txipli-txapla tiki-taka Matxinplaka.

TXITXARRO.- Kontuz mutilak, bixkortu ainkak, ona ba dator begiak zorrotz.

GUZTIAK.- Matxinplaka, txipli-txapla.....

MATXIN.- Esanak esan ibilli lotan, bat, bi, iru, bost, txanponak txanpon.

GUZTIAK.- Matxinplaka, matxinplaka.....

TXITXARRO.- Mutillak bixkor, jo ta su gogor, laster da ordi Matxin moskorti.

Mutillak igeska duaz, Matxin'eri burlaz

MATXIN.- (Mutillei jarraituz) Atrapako etzaituedala uste ba dozue... (Dua)

ANGEL agertzen da. Oin baten min artuta dator ta nekezka dabil. Bera agertu ta laster MAÑASI etorriko da.

MAÑASI.- Zer dozu Angel?

ANGEL.- Gauza andirik ez, baña ementxe nago iragoko eguntan ezertarako ez nazala. Lenagoko baten, barikua zala uste dot, txalopan naste nausia erasten gabiltzala, eskuetatik iges eginda, ezkerreko bietzak zapaldu eustazan.

MAÑASI.- (Keskaz) Baña auzi atararik eztozuizango?

ANGEL.- Ez ba. Zapaldua bakarrik. Alan esan eban osagilleak.

MAÑASI.- Eta zegaz ipiñi dautzue?

ANGEL.- Linaziagaz edo, eztakit neuk be.

MAÑASI.- Orio ta ardauagaz nastean?

ANGEL.- Alan esaten dabe, baña neuk eztaukat oberik. Anditu egiten yat ibillean.

MAÑASI.- Ez ibili.

ANGEL.- Ta etxean egon alperrarian?

MAÑASI.- Etxean be egoten dira arazoak.

ANGEL.- Atzo ta arañegun egin nituan neukazanak; esku zurda ta txibi korain batzuk bear diranerako. Orain eztaukat geiago berunik eta loro tantzarik bez.

MAÑASI.- Gure aitak daukaz ta emongo dautsudaz, gura ba dozuz.

ANGEL.- Ez, ez, eskerrikasko. Badaukat zeregiña tretzakaz.

MAÑASI.- Zuk-u, danari itxita, Arranobatera juan bear zenduke, Angel.

ANGEL.- Zer edo zer egin biarko dot, obeto ez pa nua.

TRAMANA.- (Ate aurrean agertu ta zirikalari) Gazteak ... luzea dozue

aria zeuek. Ezin eten e, ezin eten?

(Mañasi'ri) Ez lotsatu neskatillatxoa, ez lotsatu, garaian zagoz ta. Aukerakoak zarie biok bata bestientzako. (Eskutaten da)

ANGEL.- (Alkarri begira egon ondoren) Entzun dozu zer esan daben?

MAÑASI.- Edozen gauza orrek, lotsagabe andia da ta.

ANGEL.- Bai, lotsagabea da. (Alkarri barrezka geratzen dira)

MAÑASI.- Ezpagenki lez Angel eztagola Txanogorriren alabearentzat.

ANGEL.- Zergaitik ez?

MAÑASI.- Zagoz ixilik; gauza askogaitik ez. Erri guztiak eztalki ba Antoni Errotagaz ezkonduen zareana?

ANGEL.- Errietan, emakumien miñean batez be, barritxukeri andiak ibiltzen dira. Neuk diñotzut eta sinistuidazu, Mañasi; niri, oraindik, iñogaz ezkontzerik etxat gogoratu.

MAÑASI.- Ee? Egia diñostazu Angel?

ANGEL.- Egia egia

MAÑASI.- Zelan ba da egoten zara Antonigaz?

ANGEL.- Asko-askotan ez naz egon. Zeugaz be banago ta pozik egon be.

MAÑASI.- Baña nigaz beste era baten.

ANGEL.- Zuk zer dakizu? (KANTUA)

Itxasoan arrañetan pozik dakit nik ibiltzen,

pozago une onetan  
zure ondoan arkitzen.  
Biotzez gartsu,  
arimaz zuzen,  
zuretzat nazu  
Mañasi lerden.

MAÑASI.- Zuregaitik amesetan  
pozez nai neuke jolastu,  
eztalako nire ustetan  
besteren keskik loratu.  
Zu garbi izanik,  
garbi baita ni ...  
Zelan, baña, ibil,  
zelan zu eta ni?  
ANGEL.- Ezin ibili zu ta ni?  
Zegaitik ori Mañasi?

MAÑASI.- Zu ta nire artian,Angel,  
ondasunak dira nastean.  
ANGEL.- Ondasunik andiena  
daukazu gogo garbia,  
izaterik kutunena  
zure maitasun ezta.  
MÑASI.- Ala dala zure naia,  
maiteko zaitut samurrez,  
bete daigun izatea  
gure Jaunak agindu lez.  
ANGEL TA MAÑASI.-  
Maitatu gaitzen biok  
zorionaren bidetan,  
indartu gaitzen biok,  
alkarrentzako bizitzan.

OIALA

## VI - ALDERDI ARGALTIK

EGILLEAK: ANGEL, IXKIRA, ANTO-  
NI, AKILIÑE, KOSPA, TRAMA-  
NA, BRIX, KITOLIS, INDIA-  
NOA, ERRITARRAK eta  
DANTZARIAK.

IRUDIA: Mañasi'ren etxe aurrean.

Jai usaiña. DANTZARIAK "Saliña-  
Saliña" dantzea egiten dabe.

DANTZARIAK.-

Saliñetatik etorriko da  
gure eskola maixua,  
Ai Saliña Saliña Saliña,  
Ai Saliña maixua.

Dantzaldia amaitu ta ba duaz.

IXKIRA.- Angel! Au da sasoia,  
au.Noiz gertuko zara dantza-  
rako?

ANGEL.- Batek ba daki.

IXKIRA.- Laster?

ANGEL.- Ardura askorik be...

IXKIRA.- Ori da mendebala daukazu-  
na!

ANGEL.- Itxasoko denporaliak ez dira  
baltzenak eta txarrenak izaten,  
txo.

(Bakarrik) Gogorra da gero au!  
Baltza be baltza! Ederra egin  
dauste nire gurasuak. Nik esa-  
teko adorerik ez dodala eukiko  
ta... Zergaitik Antonigaz ni ez-  
kontzea erabagi? Zergaitik ...  
maite ezin dodan neska orre-  
gaz ! Gogorik izan ba neu ....  
Saltza ederrian sartu nabe  
oraintxe. Jaungoikuak argi egin  
daidala!

ANTONI agertzen da. Irribarre-  
tsu.

ANTONI.- Kaixo Angel!

ANGEL.- Ola Antoni.

ANTONI.- Ta? ze barri ? Noiz etorri  
zara?

ANGEL.- Gaur arratsaldean

ANTONI.- Ondo?

ANGEL.- Bai, ustez.

ANTONI.- Elizan ikusi zaitut len eta  
itaunduteagaitik urten dot bide-  
ra.

ANGEL.- Eskerrikasko.

ANTONI.- Ta? Zer diñostazu? Ezer  
esan dautsue etxian?

ANGEL.- Zer dala ta?

ANTONI.- Eztakizu Andramaritan ez-  
kontzeko erabagi dabenik zure  
ta nire lengusuak?

ANGEL.- Bai, ala erabagi ei dabe.

ANTONI.- Pozik zagoz? Zer deritxazu?

ANGEL.- Oraindik eztogula olakorik  
bear.

ANTONI.- Ee? Zergatik ez? Andrama-  
ritan bez? Noiz ba?

ANGEL.- Eztakit noiz

ANTONI.- Eztakizula noiz? Eztakizula  
noiz?

ANGEL.- Ez.

ANTONI.- Gitxi gora bera bez, gizona?

ANGEL.- Gitxi gora bera bez.

ANTONI.- Zoratuta al zagoz? Zuk ez-  
taukazu ezkontzeko gogorik.

ANGEL.- Noiz agertu dautzut besterik?  
Oraindiño ez beintzat.

ANTONI.- Oraindiño ez? Ez? Neuk be  
ez ba! Nai ba neu obeak ba  
daukadaz edonoiz eta edonun.

ANGEL.- Eukizuz ba, emakumea. Ze-  
ñek esan dautzu ezetzik? (Anto-

ni, asarre, dua)  
(Bere artean) Obeak ba dauka-  
daz edonoiz eta edonun ... Orre-  
la dala kalterik eztautzut egin ....  
ta biar ba da, mesedea ziurra-  
go. (Dua)  
AKILIÑE, KOSPA, TRAMANA  
eta BRIX datoz. Kantari, alaitu.  
Buruetan kolorez beteriko olez-  
ko balde dotoreak, amuskiz be-  
terik. Besoetan treotzarrak.

## KANTUA

Besigu usaiña artu orduko  
treotzaria buruan,  
antxoa txikiz betetuteko  
eun ta milla amuak.  
Atzapar puntak otzez beterik  
begi erriak malkoz bustirik,  
lan au maite duan gizonik  
oraindik ez da sorturik,

Treza bakotxa txoriandi bat,  
or gure sari kaxkarra,  
negu baltz onek ba dauka gutzat  
gose, negar eta zorra.  
Belarri onduak ospelez gori,  
espan mamiñak indarge ori,  
lan au maite duen gizonik  
oraindik ez da sorturik.

TRAMANA.- (Jezarri ondoren) Maña-  
siren autua jakingo zenduen,  
ezta?

AKILIÑE.- Nok daki egia dan edo ez!  
TRAMANA.- Jakin ez? karta bat artu ei  
eban lengo baten andik, Bilbotik  
etorrita egun batzuk igaroten  
eguala.

KOSPA.- Andik? Nundik?

TRAMANA.- Eztakizue? Indiano batek  
nai dabenik be eztakizue?

AKILIÑE.- Ba! Atzaparra dan tokian  
besua izango da.

TRAMANA.- Ai fede oneko mantziñe!  
Ba zenki dan dana ... dan dana  
jakin ...!

AKILIÑE.- Nok daki ba?

BRIX.- Ondo linbuan bizi zara zeu.

TRAMANA.- Karterua ibilli ei zan ate  
joten. Etxian iñor ez eta beko  
Krispiñak artu ei eban karta ori.

KOSPA.- Ama Birjiña maite maitia!  
Ointxe izentau dozu eskolau  
bat.

AKILIÑE.- Bai, bai. Jokatuko neuke txi-  
ringolia baiño O andiagoo bat  
aurrian ipiñi ta zer dan igarri  
ezetz.

TRAMANA.- Kustiñoa da ze arek La-  
pazorrineko Proillan'eri erakut-  
si eutsala.

AKILIÑE.- Ederra bestia.

BRIX.- Ixilik egon zaitez, ixilik egon. Ze  
barritxu da berau? Itxi egiozu  
amaitzen, amaitzen itxi.

AKILIÑE.- Emen berau, Mari zistrin.  
Tira tira! Esan egiozu lapiko txi-  
ki oneri autu ori, basterrik bas-  
ter ibilli daiten aizetzen.

BRIX.- Neu lapiko txiki! Nai dozu bes-  
te bein orixe esan ezetz?

KOSPA.- Orain be uletatik tangadaka  
astera zuaze?

BRIX.- Askok berotzen ba nai itxura  
bako berbakin ... Gero...!

AKILIÑE.- Itxura bakuak zeuk esango  
zenduzan, zeuk, orretarako mi-  
ñean arantzarik ez dozu-ta.

BRIX.- Ja-jai! Barre egin biar nau ezto-  
dala be. Berbetan diarduzunoi  
etzara makala txor-txor-txor-txor

kontu ta autu zarrak batzen.

AKILIÑE.- Orain arte garbi erabilli dot  
nik miña, ba dakizu?

BRIX.- Zulo guztietako marasmetxak  
obeto azintzen dozuz, sorgin,  
txatxala orrek.

AKILIÑE.- Sorgin txatxalia ni? Zein eta  
ni?

BRIX.- Sorgiña, bai, sorgiña. Ta zikiña  
gañera.

AKILIÑE.- Ni zikiña, Ba dakizu zer di-  
ñozun? Sarri urtengo ziñan zu  
bestela be guretik autsez ta  
zikiñez beterik. Ni zikiña? Oin-  
txe be gona barrenak zeñek  
garbiago jokatu nai dozu?

KOSPA.- Aitaren eta Semiaren...  
Naiago neuke alkarri zaparta-  
daka asiko ba ziñatekez. Auxe  
be ikusi egin biar.

BRIX.- Beste bein aitatuten ba dau  
orraio... Ni berotzen ba nau ...  
Gero ....

AKILIÑE.- Berotu? Berotu ez? Zure bi-  
tsen eta jardunen bildur nazala  
uste ba dozu ...

KOSPA.- Ixilik! Txistik bez geiago! Ze  
esango daben be ...

BRIX.- Nai dabena esatia dabe.

KOSPA.- Ixilik esan dot, kortxetas.  
(Tramanari) Ointxe be erru guz-  
tiak zeuk, Tramana, itxura bako  
kontuak ekarten zabizalako.

TRAMANA.- Ara! Antiguako Ama laz-  
tana! Orixe be entzun egin bear.  
Saltsa guztien errudun neu or-  
duan, Bakiagaitik ixiltzera nua,  
bestela.. danok be lokatuko zai-  
tuedaz, merezi be ba dozue ta.

KOSPA.- Gu kantaten gabizalaka ego-

ten gara baketan, bai? ta kanta  
daigun, kanta, bestela alkarri zi-  
rri ta tirri odolak berotzen baño  
eztakigu-ta.

GUZTIK.- KANTUA

Pittu zarran semiak Ea'n dabiz  
iru,  
langostatan gaztenak onenak  
urten du.  
Itxaso ta liorrez,  
egunez ta gaeuz,  
beti gabiz poz pozez,  
osasunez,  
maitasunez,  
alaitasunez,  
gure erria goratzen.

Yentiak esanarren au edo bes-  
tia  
Joakin'ek arrapatu beti langos-  
tia.

Itxaso ta liorrez ....

INDIANO.- (Arro dator, kantuz)

Osasuna eta ondasuna  
emakumetxo maiteak,  
nire gogo ta biotz biguna  
zabal zabalik zuentzat.

BRIX.- (Bere artean) Zein dogu au? Bai  
... zuri begiratu ezkerro ....

KOSPA.- Ala ekarri, jauna. Borondate  
obarik ezin, ondasuna ta osasu-  
na baño.

INDIANO.- Kaletik kale ibilli naz, baña  
neuk gura dodanik ez dot arkitu.

TRAMANA.- (Beretzako) Izan be zu iku-  
si ezkerro eskutaten ez dana ...

AKILIÑE.- Emen kalietan, e ... ba daki  
erri txikietan ze pasaten dan.

INDIANO.- Neskati baten etxiaren bi-  
lla nabil, arpegi polit, lirain eta go-

zodun neskatil baten billa.  
 TRAMANA.- (Brix'eri) Kontuz Brix ixurde orregaz.  
 AKILIÑE.- Ba daki izenik?  
 INDIANOA.- Jakin ez? Naizen dan dana beretzat euki ta jakin ez?  
 TRAMANA.- (Ixiltzu) Andrak-e ... Neure tretzak batzera nua neu beintzat, morroi au ganbaratik ondo ondo dabillenenik be ezta-eta.  
 KOSPA.- Zein da ba?  
 INDIANOA.-Txanogorrineko Mañasi. Bere etxia nai neuke billatu.  
 AKILIÑE.- Aukera obarik ezin. Aurrian daukan etxe orixe da. (Andrazkoak arrituta alkarren artian barriketetan diardue)  
 INDIANOA.- Au? Eskerrikazko neure zorionaren aurrean ipiñi nazuelako.  
 KOSPA.- Au berau txapeletik ondo ete dago gero?  
 TRAMANA.- Len be esan dot nik ori. Guazen emendik andrak, ikustekoak ikusi baño len.  
 INDIANOA.- (Mañasi'ren etxeko atea joten, kantuz)  
 Etxe ontako nagusi jauna, zabaldu arin atia, alaba eske jatortzue-ta Egurbideko gaztia. (Emakumeak barrezka. Indiañoari barrutik "sartu, sartu" deitzen dautse, ta emakumiei galankeru batzuegin ondoren, sartzen da).  
 TRAMANA.- Ai ba neu burutik biatzeta-rañokoa egingo neuke ... Aitia- ren eta Semiaren .... Aitaren eta Semiaren ...

BRIX.- Ze ikusteko gara andrak?  
 AKILIÑE.- (Giltzan zulotik begira ta adi- adi, zer entzungo.Beste andrak bere inguruan batzen dira, giltzan zulotik-ate barrura begira)  
 Mañasi nai ei dau, Mañasi ...  
 TRAMANA.- Zer? Nire autuak guzurrak dirala?  
 AKILIÑE.- (Entzuten dabena esanaz) Berrogei milla ogerleko ...  
 BRIX.- Izena jakitia be! Berrogei milla ogerleko,  
 KOSPA.- Zetarako?  
 BRIX.- Zetarako? Mañasigaz ezkontzearen izango da kontixu.  
 TRAMANA.- Ze esaten neban nik?  
 AKILIÑE.- Mañasik ezezkoa emon dautsa, itxuraz.  
 KOSPA.- Ta orain gurasoak erosi nai, ezta?  
 AKILIÑE.- Ikusiko ba zenduke Txanogorriren bitsa ...  
 BRIX.- A ze alperrik, Mañasiren borondaterik ez ba dau.  
 AKILIÑE.- Ixi!  
 TRAMANA.- Tira, ez gara gorra be ta.  
 AKILIÑE.- Baietz diñotse. Eurak aginduko dabela baietz emoteko.  
 TRAMANA.- Berrogei millaogerleko diruak izango dira, baña burutik ondo ez dabillenen agure zarra be ...  
 AKILIÑE.- Ixi!  
 TRAMANA.- Ze ixi ta mixi! Juan daite- la mutil zimeloi bere errira, emen iñor nastaten etorri barik.  
 KOSPA.- Orraitio zeure alabeari eski- ñiko ba leuskioez ..  
 TRAMANA.- Nai bez nik olako dirurik.

AKILIÑE.- Ixilik egoteko! Ze barritxu da berau?  
 TRAMANA.- Ia...ia. egiten dautzudan sakadiagaz giltzan zulotik sartzen zaitudan.Ba dakizu gaurmin labana darabiltzuna? Gero ... Neu ez ipini gero...  
 ANGEL eta KITOLIS agertzen dira  
 KITOLIS.- Zer darabizue zeuok? Ze pasaten da?  
 TRAMANA.- Indiano bat etorri da... Indiano bat. Berrogei milla ogerleko agintzen dautsez Mañasiren orde z Txanogorri ta emazteari. Berrogei milla ogerleko.  
 KITOLIS.- Je..je... Diru askotxo dira eurok ... gurasuei agintzeko.  
 TRAMANA.- Mañasirentzat izango dira kontixu.  
 KITOLIS.- Mañasiren biotza erosi? Um... izan lei, izan lei... ezta Angel?  
 ANGEL.- Itxi niri baketan, Kitolis.  
 KITOLIS.- Tira txo, ez barruari artu eragin. (Kiñu egiñaz) Mañasiren biotza ondo salduta ez dago ba?  
 ANGEL.- Nik ezta-ki iñoren barririk. Neuriagaz be naiku zeregin daukat. Agur Kitolis. (Lotsatuta lez igez egiten dau)  
 KITOLIS.- Zer? Beste barik?  
 Angel koitadua! Eguna be eguna ipiñi dautse gaur. Lenengo gurasuak Antonigaz ezkondu eragin nai. Orain au. Erreka-ziak eruango al dauz zoro aldi guztiok, berari bidea argituz.

AKILIÑE.- Kotuz! Kontuz! Emen dator gure gizona!  
 (Atondotik igeska)  
 TRAMANA.- Ze demontre! Taketa jo biar dautsagu ixurde orreri.  
 BRIX.- Ori, ori. Adarra jo biar dautsagu... berak geuri jo baño len.  
 INDIANUA atean agertzen da, Mañasiren gurasuei irribarrez agur egiten.Kaletik arin aringa datozen mutiltxoak "Bolobolo" didarrez datoz,  
 MUTILLAK.- (Zarataka) Bolo! Bolo Indianua! Bolo Bolo!!!  
 ERRITARRAK.- Bolo-Bolooo!!!  
 KANTUA Bolo Bolo Indiatik urria dator ugari.  
 Bolo Bolo Indiatik mutil gaztia ugari.  
 Bolo Bolo Indiatik sakelak bete betian,  
 Bolo Bolo Indiatik neskatil gazte eskian.  
 Bolo Bolo bolotan Ondarru dana kantetan.  
 INDIANUA.- Erri polit onetatik poz pozez nua zorutzen nai nebana lorturik nire kutuna billatzen.  
 ERRITARRAK.- Bolo bolo bolotan Ondarru dana kantetan.  
 INDIANUA.- Laster etorriko naz zuen artian bizitzen maite maite dodanaz nire etxia ipinten.  
 GUZTIAK.- Bolo bolo bolotan Ondarru dana kantetan.  
 ERRITARRAK.- (zarataka) Bolo. Bolooooo!!!!!!

## VII - ITXASORA

EGILLEAK: TXANGURRU, MATXIN,  
ANGEL, MOXKOR, TXILIN,  
ANGULARIAK, ARRANTZA-  
LIAK, ERRITARRAK.

IRUDIA: Kai aurrean. Gauerdi ondo-  
ren.

ANGULARIAK.- (Anguletako oi diran  
bai eta tresnakaz. Kantuz)

Au gauaren ederra  
izarrez jantzia  
gabaz bai maitekorra  
goi zeru garbia

Orain bai zeru eder  
izarrez betia,  
onela pozik dager  
gaur angularia.

Guazen, guazen lagunak,  
guazen ur ertzera,  
angulatxo bigunak  
baietan sartzera.

ABEL.- (Urrunera deiez) Txinpas.....!  
Txinpas....!

(Barrutik) Oraindik or?

ABEL.- Da? Ze barri?

(Barrutik) Bost-sei, bost-sei... or nabil.

PERU.- Bost-sei diño? Izango dira  
amasei.

ZATORRA.- Orreri beintzat or dago  
bota lei.

PIPAX.- Tuntux'ek zer ete diño ba?

LIRAIN.- Beti lez Zalduko zuloan  
egongo da a.

PERU.- Arek berak erantzuteko orrei-

tiok-o... eguna egun izango li-  
tzake.

ABEL.- Zegaitik ez dau erantzun biar  
ba, (deiez) Tuntux...! Tuntux....!  
(Barrutik) Eup!

ABEL.- Ze barri? Asko?  
(Barrutik).- Izkirak eta zikiñek bai

ABEL.- Ta angulak?  
(Barrutik) Emen korrenta ugari

PERU.- Banengoan ba orrek erantzun  
zuzenik emongo ebanik.

ZATORRA.- Ara ez joateko beste  
adierazi dau ta geiago zer es-  
katu lei gor eta moskor orreri?

PERU.- Gorra edo moskorra, jo daus-  
ku ederto tontorra.

PIPAX.- Bai erantzun koxkorra.

ABEL.- Ori da ba gure lorra.

LIRAIN.- Barrero be izango dogu zorra.

PERU.- Sarri bai sakel dollorra.

PIPAX.- Goizetan ez da faltako lo kon-  
korra.

LIRAIN.- Entzun biar gero atsuen mor-  
morra.

PERU.- Eskerrak dogun arpegi gogo-  
rra.

ZATORRA.- (Nasai) Kontuak kontu  
erre daigun txokorra.

PIPAX.- Bertsolari zu be zatorra?

ZATORRA.- Ala dala uste derrigorra.

ABEL.- Tira mutillak, jardunak jardun  
eta bertsuak bertso, obe ez ete  
dogu izango gure tokietara urre-  
ratu?

ZATORRA.- Ori litzake biarrezkoena.

PIPAX.- Gaur da beintzat gauñik ego-  
kiena.

LIRAIN.- Izentau niretzat tokirik onena.

PERU.- Nok jakin zein da ugariena?

LIRAIN.- Zuentzat edozein ba da auke-

rakoena, niretzat laga epelena.

ABEL.- (Lirain'eri) Ezetz izan geiena?

PIPAX.- Ori! Lotarako bai ariñena.

PERU.- Eutsi ordago orreri lenena.

LIRAIN.- Zeñena?

PERU.- Alboan dozu zirikalariena.

ABEL.- Asiko dogu ekiñik gogotsuena?

PIPAX.- Emen gara ba aldrarik kement-  
suena.

PERU.- Gaur izan lei gaurik aberatse-  
na.

KANTUA

Dan, dan, dan!

Parol argiz

bete dira

ibai ertzak.

Gau illunian ibai onduan

ta eguerdian mai buruan.

Angulari, angulari, ekin gogoz.

Dan, dan, dan!

Gure baiak

laster dira

zuri-zuri.

Argi onduan angula ugari

bai inguruan ziri-ziri.

Angulari, angulari, ekin gogoz.

MATXIN.- (Gau zaindaria. Angulariak  
duazan aldera begira)

Ut ortik, zoro tentelok

alakuok. Nik aña lo gose ba zen-

duke... Onezkero erriko atso-

aguratxoak lo nasairik egingo

eben korroskada otsean. Nik

ere bai... la Matxin, lo arin bat

baño ez ba da be bota egin biar-

ko da dei ordurako.

(Jezarri, jantzi artean burua es-

taldu ta lo egiten dau)

MOXKOR eta TXILIN agertzen dira,

albo-alboka, kantari.

MOXKOR eta TXILIN.-

Tibilin tibilin-tin

Ploren, Ploren, Ploren,

Tibilin, tibilin tin

Ploren, Ploren Maria.

MOXKOR.- (Matxin'en parola ikus-  
tean) Ene! Ikusten?

TXILIN.- Izar bat eta iru izar.

MOXKOR.- Kontxo! Kontxo! Gaur ka-  
lian be izarrak.

TXILIN.- (Ganora barik, kantuz)

Zeru goietan izarra

errekaldian iparra,

gure arpegiak bizarra

eta soñean piparra.

TXILIN.- Moxkor! Egi biribil biribil biri-  
bila esan gero! Nik moskorrik  
eztaukat, ezta?

MOXKOR.- Guk moskorra? Moskorra  
guk? (Oin baten gañian jarri nai  
dau, baña jausten da) Guk  
moskorra? Guk, (Kabriolak egi-  
ñaz) Guk?

TXILIN.- Nik sekula baño pentsamen-  
tu geiago darabillaz buruan.

MOXKOR.- Nik, egia esan, illun-illun  
ikusten dodaz gauza guztiak.  
Baña origaitik moskorra? Be-  
gietako lanbrua bai, baña mos-  
korra?

TXILIN.- Ori izarren onduan gabizala-  
ko da, txo!

MOXKOR.- Izarren onduan? Min artu  
ta izarrak ikusten diranetan, or-  
duan lanbrurik ez da ikusten  
ba. Zazpi koloreko argitasuna  
gitxienez ikusi neban atzo be,  
karel onduan atzaparra zapal-  
du nebanian.

- TXILIN.- (Matxin'en parola eskuetan artu ta dantzan) Ikusten Moxkor?  
 KANTUZ Tibilin, tibilin, tin Ploren Tibilin tibilin tin PlorenMaria.  
 TXILIN eta MOXKOR.- Anteron txomorrotia, Txingarren bibotia, aretxek ei dauko preso tximiñoia. (Dantzan diarduela Matxin zapalduten dau ta au asarre jagiten da)  
 MATXIN.- Zer da emen? Zer da emen?  
 MOXKOR.- Zu ere izarren onduan, Matxin,  
 MATXIN.- Ze izar eta ze bizar! Lotsarik ba duzue zeuok?  
 TXILIN.- Guk lotsarik ez? Lotsia, bizarra ta izarra, dana.  
 MATXIN.- Itxura bako erantzunik emon barik, ospa lotara.  
 TXILIN.- E? Zer? Botara? Moxkor, emon oneri botia.  
 MOXKOR.- (Matxin'eri botia emonaz) Aupa Matxin! Au da umoria!  
 KANTUZ Au dek umoria utzi alde batera euskaldun jentia  
 MATXIN.- (Zarataka) Zurikeri gitxi niri. Lotara esan dot. Lotara.  
 TXILIN.- Aaa Lotara...lotara... Gaua da ala?  
 MATXIN.- Zuen atsuaq barriro be ibilliko dira ortozik eta negarrez.  
 MOXKOR.- Ortozik eta negarrez? Eta sutako burdiñiakin segi egiten dauskuenetan, zer?  
 MATXIN.- Urdailletik sartuko ba leut-
- suke bein, orduntxe bakia  
 TXILIN.- Eta oian sartu ondoren zapladaz bete-bete egiten gaitunetan?  
 MATXIN.- Lotsatu be etzarie egiten atsuen zapladak artzen? Orretarako ezkondu ziñen, orretarako?  
 TXILIN.- Ezkondu? Ezkondu diñozu? Ja, ja, ja, ja!  
 KANTUZ Eta zeñekin, eta norekin. Petra zikiñan alabarekin.  
 MOXKOR.- Eta zeñekin, eta norekin Kospa moskorran alabarekin.  
 MATXIN.- (Asarre) Beste bein eztautzueta esango. Begien aurretik kentzen ez ba zarie!  
 MOXKOR.- Begien aurretik kendu? Ez begiratu bear. Aur bestia! Nok dauka orren errua?  
 MATXIN.- Umekeririk eta zorakeririk ez esateko! Ta zuzen etxera.  
 MOXKOR.- Etxera. Etxe utza gerra utza.  
 TXILIN.- Obeto gabiz gu kalia, bakebaketan.  
 MATXIN.- Ez uste olgetan nabillenenik. (Giltzak erakutsiaz) Ikusten?  
 TXILIN.- Zer? Giltzak? Nungo giltzak?  
 MOXKOR.- San Pedro zara ala?  
 MATXIN.- Barriketa gitxi erabilteko!  
 MOXKOR.- Guk ez darabilgu ez barriketarik ez zirriketarik.  
 TXILIN.- KANTUZ Zirriketa marraketa kitarra botikaxuan alabia!  
 MATXIN.- Ze demontre ! Ixilik juango zarie edo ez?  
 MOXKOR.- Juan? Nora?  
 MATXIN.- Edonora!  
 TXILIN.- Au beroi! Ezagutuko ez ba zendukedaz...!

- MATXIN.- Alkatiak jakingo dau biyar.  
 TXILIN.- Alkatiak? Nungo alkatiak?  
 MOXKOR.- Alkatiak?  
 KANTUZ Or goiko landetan eperrak dabiz kantetan, erri ontako alkatiari kaka ein dautse praketan...  
 MATXIN.- Oraindik enazue ezagutzen ez? (Kanpora bultz egiñaz) Ala ortik, alper, moskor, ordi, baldar, arlotiok alakuok!  
 TXILIN.- (Eten gabeko jardunean) Gu alperrak? Alperrak gu? Gu moskorak? Gu?  
 MOXKOR.- Gu baño ordiango zara zu! Zaragi osua edango leuke-ta.  
 MATXIN.- Eta ixilik juan gero! Bestela ikusi nun lo egingo dozuen! (TXILIN eta MOXKOR ezkutaten dira)  
 Beti beti bardin izan biar dabela gero eurok. Eta beti eurok! Zeñek errua? Zeñek? Alkatiak. Aretxek: alkatiak. Ni alkate ba nintz...  
 (Ardau botila ikusi ondoren) Ara ba... Asarreak asarre ez dago jai galdurik. Arda botia emen itxi dabe beintzat eta... Ikusiko dogu biyar gizontzuok zer diñuen. (Botatik arda edaten dau)  
 TXANGURRU.- (Agertuaz) Zer da Matxin? Deia joten egarrituta?  
 MATXIN.- Oraindik e...  
 (Goizeko irurak entzuten dira)  
 TXANGURRU.- Entzuten ?  
 MATXIN.- Irurak! Ai, ai! (Kale ertzetik deiez) Miel, jaiki Jaungoikuaren izenian! Kaxpar! Altxa itxasorako, Jaungoikuaren izenian!  
 TXANGURRU.- Ori da ori! Nai beste lo egin ondoren bestiei itxi gura ez bardin egiten.  
 MATXIN.- Aguren baten jardun eta mar-marrak ez dira makalak izango, Txangurru. (Dua, Deia entzungo da gero ta urrunago)  
 TXANGURRU.- Enaz txarto ibilli ariñeketan, ordua zalakuan. Eskerrak ur biziak diran. Bestela, orduak ordu galdu biarko genduzan deilari gibelandi bategaitik. (Kaira begira) Gure potin ederra or dago. Mutillak datozanian belak zabaldu ta or juango gara. Ez dakit bestiak ze asmo darabilen. Gu geu beintzat, gaua galtzeko asmatan juan biarko gara, emen, barruko kaletan, arrañen aztarrenik be ez da artzen-ta.  
 ANGEL agertzen da, itzal. Zer da Angel, Otzakin bildurtuta?  
 ANGEL.- Amasei urte inguru alkarregaz ibilli gara ta ifioiz bildurrik ezagutu daustuzu?  
 TXANGURRU.- Zer da ba?  
 ANGEL.- Gaur ezin nei itxasora etorri.  
 TXANGURRU.- Makal aldiren bat?  
 ANGEL.- Ez.  
 TXANGURRU.- Zoritxarren bat?  
 ANGEL.- Ez txikia be?  
 TXANGURRU.- Etxian?  
 ANGEL.- Beti saltoka ta alai-alai ebillan semetxua ezagutzen zendun, ezta?

- TXANGURRU.- Ezagutu ez? Bai ta?  
ANGEL.- Geiago ez dogu ikusiko Txanguru.  
TXANGURRU.- Ene ba! Zer diñozu?  
ANGEL.- Il eginda, gixajua, il, il...  
TXANGURRU.- Ez da egia izango. Il? Noiz?  
ANGEL.- Gau erdi erdian. Oraindik bere gorputxo bero bero dago.  
TXANGURRU.- Zelan baña?  
ANGEL.- Makalik ebillan egunetan, baña ez ainbeste uste izateko eran. Atzo gabean, itxura batean, ezeukan ezertxo be. Illuntze guztia alkarregaz igaro gendun jolasean, Mañasi ta irurok. Ta gaberdian... negarka ta zotinka ebillala, bertan bera begiak itxi ta il egin da. Bera bakarrik gendun eta.... il da koitadu errukarria! (Zotiñari eutsi ezinda geratzen da. Txangurruk besarkatuten dau. Barrutik, abeslariak, gozo-gozo:)
- ABESLARIAK.-  
Zure oroiz aita dago goiz goizetik gaberaño, nik zu zaitut maitiago txoritxuak umia baño.
- ANGEL.- Ni-neuk be, Txanguru, bera kendu azkero, naiago neuke an Goian dagonak bere ondora eruango ba neu.  
TXANGURRU.- Barruko miñaren pentamentuak izaten dira orreik, Angel. Guk biok, oraindik itxasote asko egin bear doguz. Eta gabetan, itxasoetako bakartadetan, izarrak kiñu egiten dauskuen antzera ekaitz egunetan aingerutxo bat eukiko dogu, emendik aurrera, guri begira, goi-goitik guri lagunduten.
- ANGEL.- Baña nik ez dakit ara juateko barruko miñ au gaindu al izango dodan.  
(MOXKOR agertzen da, ganora barik, zerbaiten billa)  
MOXKOR.- (KANTUZ)  
Nire andrian gona gorria beria ba leu ezer ez...  
ANGEL.- Oneik dakie bizitzen, Txanguru, ta ez guk. Guk beti dogu zerbait.
- TXANGURRU.- Eta eurok ez ala?  
ANGEL.- Moskorra moskorren gain eta miñik ez beintzat.  
TXANGURRU.- Zer Moxkor? Lotan aspertuta? Oian ezin egon?  
MOXKOR.- Lo? Atsuaren billa nabil.  
TXANGURRU.- Atsuak iges egin dau-tzu?  
MOXKOR.- Iges edo oztu.  
TXANGURRU.- Ostu, Amazortziko neskatala ba litzateke be...  
MOXKOR.- Aa !Arekin zabiz! Maspasatuta dagan atsuarekin? Or konpon. Arek igesi? Nik beste atsua diñot.
- ANGEL.- (Bizi) bai mutil. Ondo zabiltz. Ibilli, jolastu, moskortu, atsegiña billatu....  
TXANGURRU.- Ez olakorik esan Angel.  
MOXKOR.- Trumoia da ala, Angel?  
TXANGURRU.- (Moxkor'eri besotik ten egiñaz) Itxi baketan orreri ta etxera emendik. Semetxua iljako bai, ta naiku dauka orrek.

- MOXKOR.- Semetxua il? Beste bat ekarri orduan.  
ANGEL.- Ezagutuko ez ba neu zelan zagozen, samia biurtuko neutzuke madarikatu orreri.  
TXANGURRU.- (MOXKOR kanpora jaurtiz) Juan zaitez, juan, sapu ori ta ikasi bein gizon agertzen. Ez jaramonik Angel. Gizon izaten ez dakianari, jaramonik ez egitea da onena.  
ANGEL.- Mutillak laster etorriko dira, onezkero.  
TXANGURRU.- Ondo izatekotan emen egon bear ziran.  
ANGEL.- Ni ba nua, eurei neure zoritxar au adierazteko adorerik ez daukadalako.  
TXANGURRU.- (Lepoan jo ta lagun-duaz) Bai Angel... Nire kontu. (Angel ezkutaten da)  
TXANGURRU.- Angel errukarria! Mañasigaz ezkontzeko or ibilli biar izan eban... Maitasunez ezkondu nai ta milla arantza gogo ori lortu aurretik. Etxekoak batekin sartu zirala... bere kutuna diruagaz erosi nai ebala.... Ezkondu ziran zorionean ta bai alkar maite bizi be. Ta semetxua Jaungoikuak emon eutsenian berari begira bizitzen baño ez dabe jakin. Angel koitadua! Seme bat bakarra izan, bere amesez bizi ta bera il! (MIKOL agertzen da)  
Berandu zabiz, Mikol.
- MIKOL.- Beti Mikol berandu. Ta besitiak?  
TXANGURRU.- Bestiak a... Tira, belak zabaltzen asi potiñean.
- MIKOL.- Belak zabaltzia besterik ez ba da, ez dogu denpora askorik galduko. Beste tresnak gertu dagoz?  
TXANGURRU.- Atzo gabetik. Ba da ezpadan begiratuko dot ezer geratu ete dan, (Barrutik abestia entzuten da. MIKOL potiña dagon tokirantz eskutaten da. TXANGURRU sartu ta urten dabil. ARRANTZALIAK datoz kanta-ri:)
- Jaiki arrantzalia, potiña zure zai beti. Errikuak ez daki itxastarraren barririk. Iurra agurtu ta itxasoan eguzki eta illargi.
- TXANGURRU.- la mutillak. Gaur lorik naiku egin zozue-ta. Otzarak eta mundillak itxi bixkor potiñean.
- PERU.- Artu Mikol otzara au ta mundillak.  
MIKOL.- (Barrutik) Morroi barik ezer egiten eztaizue ala?  
PERU.- la ba, atzekua emen dabil zazpiki antzerata...  
TXANGURRU.- Biar diran guztiak ekarri dozuez?  
PERU.- Nik betiko antzera.  
BATEK.- Nik be bai.  
PERU.- Gitxi gora bera or ibilliko gara nunbait.  
TXANGURRU.- Asi ba erramuak ataraten.  
(Erramuak ataraten ditue ta erramua eskuetan dabela geratzen dira, antzeztokia beteten)

PERU.- Angel falta da oraindik.  
 TXANGURRU.- Arek berak ba dau buru-  
 komiñik eta atsekaberik gaur.  
 Semetxua il egin jako gaberdian.  
 MIKOL.- Semetxua il? Atzo illuntzean  
 neuk ikusi neban gure kalian.  
 PERU.- Ondo zoritxarreko ta errukarria  
 da bera.  
 TXANGURRU.- Emen munduan ba ete  
 dago iñor zoritxarreko ez danik?  
 Atsekabe geiago edo gitxiago.....  
 baña beti miña barruan.Ni neuk  
 uste dot mutilzar geratzen diranak  
 bakarrik dakiela zoriona zer dan.  
 MIKOL.- Beti jardun bardiña darabiltzu.  
 Guk eztaukagu miñik ala?  
 PERU.- Zuek? Aita-amak bizi diran ar-  
 tian, pixkat, baña gero! Gauza guz-  
 tiei or konpon esan ta ibilli nai  
 dozuen erara.  
 TXANGURRU.- Guk beintzat, ondo pen-  
 tsatu ezker, atsekabe miña ez  
 daroagu urrun, oraintxe be. Ointxe  
 be ba guaz beintzat gurasuak, ku-  
 tunak, semetxuak, ondasunak,  
 etxia, erria... dana lagata, Jaun-

goikuak gura daben arte ta  
 Berak bakarrik nai daben bi-  
 detatik zear.

Lotan laga doguzanak, biar ba  
 da, negarrez itxartuko dira gu  
 geiago ikusi eziñik. Begiratu  
 gure erriari... ta eztagu azke-  
 nengoz agur egiten dautsa-  
 gun. Ta beti bardin, beti onela-  
 xe, beti jua egin biar, urrun  
 urrunera jua biar... ura ta ze-  
 rua besterik ikusten ez dan  
 urrun urrunera, Antiguako Ama  
 maitea izar dogula....!

(ARRANTZALE taldea, erra-  
 muak eskuetan dituela, kan-  
 tuz:)

Boga boga mariñelak  
 jua bear dugu urrutira  
 Bai Indietara.  
 Ez dot nik ikusiko  
 zure plai ederra,  
 Agur Ondarroako  
 Itxaso basterra.  
 Mariñelak, boga!

AMAIA